# ARGAZKI ERAKUSKETA: *BEGIRADAK*

*Dantza gaitzat duten argazkiak Egiako kultur etxean ikusgai maiatzaren 6tik 27ra*

2015eko apirilean dantzako argazkigintza-tailer bat antolatu zuen Gipuzkoako Dantzaguneak. Dantzako argazkiak ateratzen espezializatutako GorkaBravo argazkilaria izan zen irakaslea. Tailerraren barruan Egia kultur etxean egindako Dantzategiko hainbat saiotan aritu ziren argazkiak ateratzen.

Donostia Kulturaren baitan dagoen Egiako kultur etxeak eta Gipuzkoako Dantzaguneak elkarnanean erakusketa bat prestatu dute, han egindako zenbait argazki publiko guztiei helarazteko. *Begiradak* erakusketak dantzaren gaineko zazpi argazkilariren begirada pertsonalak jasotzen ditu. Maiatzaren 6tik 27ra egongo da ikusgai Egiako kultur etxean.

Erakusketako argazkiak Gipuzkoako Dantzagunearen argazkilaritza-tailerrean hartutakoak dira. Zenbait klase teorikoren eta praktikoren bitartez, dantza argazkitan jasotzeko teknikak irakatsi zizkien Bravok tailerreko ikasleei. Gaur egungo argazkilaritzaren fase guztiak landu zituzten: klase teorikotik hasi eta argazkiaren ondorengo oinarrizko edizio digitaleraino. Iazko apirileko Dantzategian egin zituzten praktikak: kalean,eszenatokian, dantza-estudioan… egoera askotan hartu zuten iruditan Dantzaz eta Kulbik konpainietako dantzarien jarduna. Orduan egindako arte-lanak ikusteko aukera paregabea izango da maiatzean zehar.

**Inaugurazio-ekitaldia maiatzaren 6an, *Ascuas* performancearekin**

Erakusketa abian jartzeko, ekitaldi bat egingo da **Egiako kultur etxean, maiatzaren 6an, 19:30ean**. Donostia Kulturako eta Gipuzkoako Dantzaguneko ordezkariekin batera, Gorka Bravo izango da bertan.

Erakusketa irekitzeko, *Ascuas* performancea izango da. Hip-hopa, break dancea eta dantzagaraikidea uztartzen ditu, Thiago Almeida, Henrique de Souza eta Marina Scotto dantzariekin.

**Eraskusketa: *Begiradak*, Gipuzkoako Dantzaguneko argazki-tailerreko argazkiak Egiako kultur etxean:**

- **Datak:** maiatzaren 6tik 27ra
- **Inaugurazio-ekitaldia:** maiatzaren 6an, 19:30ean
- **Tokia:** Egiako kultur etxea, Donostia (Baztan kalea, 21, 20012, Donostia)
- **Ordutegia:** 10:00-14:00 / 16:00-21:00
- **Komisarioa:** Gorka Bravo
- **Argazkilariak:** Gorka Bravo, Jesus Gil, Iker Amantegi, Iñaki Zugasti, Mikel Button, Junkal Ruiz de Apodaka, Ana Elorza
- **Antolatzaileak:** Gipuzkoako Dantzagunea eta Donostia Kultura

# EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA: *MIRADAS*

*Fotografías sobre danza en la casa de cultura de Egia del 6 al 27 de mayo*

En abril del año pasado Gipuzkoako Dantzagunea organizó un taller de fotografía para danza con el fotógrafo Gorka Bravo. Dentro del taller, los alumnos realizaron varias prácticas en Dantzategia 2015, sacando numerosas fotos.

Donostia Kultura, con la casa de cultura de Egia al frente, y Gipuzkoako Dantzagunea hemos organizado una exposición que recoge varias fotografias de aquellas sesiones, para que el público general pueda verlas. La exposición, titulada *Miradas*, muestra la mirada personal sobre la danza de de siete fotógrafos.  La exposición estará en le casa de cultura de Egia, del 6 al 27 de mayo.

Las fotografías que se exponen fueron tomadas durante el curso de fotografía que organizó Gipuzkoako Dantzagunea, en el que Bravo transmitió varias técnicas para retrar la danza en fotografías, comenzando con la teoría hasta llegar a la posterior edición digital. La parte práctica del curso se realizó en el Dantzategia del 2015: en las calles, en escenario, en unestudio de danza... los alumnos tuvieron la oportunidad de fotografiar de cerca a las compañías Dantzaz y Kulbik, y durante el próximo mes de mayo todas las personas que se acerquen a Gazteszena tendran la oportunidad de ver el resultado artístico de estos fotografos.

**Acto de inauguración, el 6 de mayo, con la performance *Ascuas***

Para iniciar la exposicion, se realizará un acto de inauguración **en Gazteszena, el día 6 de mayo, a las 19:30**. Representantes de Donostia Kultura y Gipuzkoako Dantzagunea participarán en él,junto al comisario Gorka Bravo.

La exposición se inaugurara con la performance *Ascuas*, que fusiona hip-hop, brek dance ydanza contemporánea, con los bailarines bailarines Thiago Almeida, Henrique de Souza y MarinaScotto.

**Exposición: *Miradas*, fotografías del taller de fotografía de Gipuzkoako Dantzagunea en la casa de cultura de Egia**

- **Fechas:** del 6 al 27 de mayo
- **Lugar:** Casa de cultura de Egia (Baztan kalea, 21, 20012, Donostia)
- **Horario:** 10:00-14:00 / 16:00-21:00
- **Comisario:** Gorka Bravo
- **Fotografías de:** Gorka Bravo, Jesus Gil, Iker Amantegi, Iñaki Zugasti, Mikel Button, Junkal Ruiz de Apodaka, Ana Elorza
- **Organizan:** Gipuzkoako Dantzagunea y Donostia Kultura